



**UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBAK
2005-06 IKASTURTEA**

LURRAREN ETA INGURUMENAREN ZIENTZIAK

Bi aukeretako bat hautatu eta bertako lau galderak erantzun

A AUKERA

1. Aztergaia (2,5 puntu)

Baliabide energetikoak

- 1.1. Aipa itzazu energia berriztagarrien abantailak eta energia alternatiboen eragozpenak. Energia berriztagarrien artean, energia eolikoaren zer alderdi nabarmenduko zenuke, gainerakoekin alderatzeko?
- 1.2. Espainiako meatzetako ikatzak sufre asko du. Ingurumenaren aldetik, zer ondorio dakar ikatz hori erabiltzeak?

2. Aztergaia. (2,5 puntu)

Baliabide hidrikoak

- 2.1 Azal eta deskriba ezazu zeintzuk diren uraren erabilerak.
- 2.2. Nola eragin dezake gizakiak ziklo hidrológicoan?

3. Aztergaia (2,5 puntu)

Dinamika ozeanikoa

- 3.1 Azal ezazu zergatik sortzen diren azaleko eta sakoneko korronteak ozeanoetan.
- 3.2. Zer dira azaleramendu-zonak?

4. Aztergaia (2,5 puntu)

Ekosistema

- 4.1. Ekosistema batean, maila trofiko jakin bateko ekoizpen garbia izan al daiteke aurreko maila trofikoeko ekoizpen garbia baino handiagoa? Arrazoitu erantzuna.
- 4.2. Azal ezazu organismo deskonposatzaileek ekosistemetan duten garrantzia.





B AUKERA

1. Aztergaia (2,5 puntu)

Baliabide energetikoak

- 1.1 Azal itzazu gizakiak erabili dituen ohiko energia iturrien ezaugarri nagusiak. Zeintzuk dira, gaur esaten denaren arabera, ingurumenarekin begirunezkoenak diren energia motak? Azaldu energia mota horiek dituzten abantailak eta eragozpenak.
- 1.2. Zerk kutsatuko du gehiago: erregai fosilen energiak edo energia nuklearrak? Zein nahiago du iritzi publikoak? Arrazoitu erantzunak.

2. Aztergaia (2,5 puntu)

Baliabide hidrikoak

- 2.1. Azal ezazu zer den ur-masa baten eutrofizazioa eta ekosistemen gainean duen eragina.
- 2.2. Hondakin-urak araztearen ondorioz, lohi edo lokatz izeneko hondakin batzuk sortzen dira. Zer prozesu ezartzen zaie eta zertarako erabiltzen dira lortutako produktuak?

3. Aztergaia (2,5 puntu)

Hiri-ekosistema

- 3.1. Hiri-hondakinen konposizioa. Hondakin horiek berrerabiltzearen, birziklatzearen eta baloratzearen abantailak, ekonomiarentzat eta ingurumenarentzat.
- 3.2. Europar Batasunean zarata gehien ekoizten duten herrialdeetako bat da Espainia. Esan zer neurri hartu beharko liratekeen kutsadura akustikoa murrizteko.

4. Aztergaia (2,5 puntu)

Lurzorua

- 4.1. Azaldu lurzorua osatzea ahalbidetzen duten faktore naturalak.
- 4.2. Azal itzazu lurzoruen higaduraren ondoriozko ingurumen-arazoak.

